



6. Gebaratarren lurra
SEKUENTZIA DIDAKTIKOA

Oñati alkarregaz ezaguketako

6. Gebaratarren lurra

MUINA

- Helburuak
 - Orokorrak
 - Sekuentzia honen helburua da irakasleak bideratutako elkarrizketa batetik ikasleen interesgune den gai bat ardatz hartuta ikasleen arteko elkarrekintza eta ekiten jardutea ahalbidetuz, beraien gaitasunak ahalik eta gehien garatzea. Horretarako euren gela “Oñati” txiki bat bihurtuko dute. Garai hartako jendartearen botere harremanak erreproduzitzeko dituzte. Kondearen homologoak izango dira batzuk, herri xehea beste batzuk... Eta proiektu honen amaiera hausnarketa bat egiten borobilduko da.
 - Espezifikoak
 - Oñatin XV. mendean jendartea eratuta nola zegoen ulertzea.
 - Gebaratarren inguruko informazioa jasotzea.
 - Kondeak/jaunak zer botere zuen jakitea.
 - Gaur egungo Oñatiko agintarien berri izatea.
 - Hausnartzeko gaitasuna lantzea.
 - Enpatia lantzea.
 - Frustrazioa, haserrea... kudeatzeko gaitasuna lantzea.
- Azken xedea edo ekoizpena
 - Azken xedea izango da hurrengo neurriko demokraziaren inguruko hausnarketa kolektibo bat egitea eta hortik hainbat ondorio ateratzea.
- Ikaste taldea
 - Lehenengo ziklorako pentsatuta dagoen sekuentzia da, printzipioz.

SEKUENTZIA DIDAKTIKOA

HASIERA FASEA

- 1. jarduera → Aurrezagutzak identifikatzen

-Sekuentzia hau, besteekin alderatuz, berezitat jo dezakegu. Izan ere, eskolako ohiko jardunarekin bateragarria izango da. Momentu batzuetan espazioa eta denbora eskaini beharko zaio baina jarduera batzuk ohiko jardunarekin bateratzekoak dira.

-Gaiari murgiltzeko, irakaslea gelara sartuko da eta arduratu antzean esango du munduko agintariren batek egindako zerbaitek (eguneko albistea izan daiteke... Amerika, Txina, Korea, Afrika... beti dago gerraren bat, ekintza txarren bat - edo ona!- munduan.

-Irakasleak hau ta gero galdetuko die ea ezagutzen duten agintariren bat, presidente bat, erregeren bat... Hau eta gero galdetuko diegu ea garrantzitsua iruditzen zaien agintariaren izaera. Hau da, agintari "txar" edo "on" batek gure bizitzetan eragina izan dezake, ezta?

-Hau esanik, ea Oñatin nork agintzen duen badakiten galdetuko diegu. *"Alkatea ezagutzen duzue? Zer uste duzue egiten duela alkateak? Non egiten du lan? Eta eskolan nork agintzen du? Eta gela barruan?"* Honen helburua izango da, nolabait, ulertzea gizartean badaudela botere harremanak eta agintean dagoenak eragina duela bere menpekoengan.

-Ondoren, imajinatuzera pasako gara. Planteatuko diegu, demagun, Oñatiko alkateak orain bezala agindu beharrean beste modu batean agintzen duela. Agian, parkeak debekatzen ditu, edo Oñatiko denda guztietan hurrentzako txokoak ipintzen ditu... Haurren alde edo kontra, baina gaur egunekoarekin alderatuta, diferente. Eta hau da egin beharreko galdera: *Gustatuko litzaizueke diferente agintzea? Zer gustatuko litzaizueke? Zer ez? Zergatik?*

-*Eta Erdi Aroan nork eta nola agintzen zuen Oñatin?* Galdera hau zubi modura planteatuko dugu. Hemen euren aurrezagutzak pizten lagunduko diegu eta talde handian komentatuko dute zer uste duten. Guk erantzunik ez diegu emango, hurrengo jarduerarako garrantzitsua izango da hori.

- 2. jarduera → Aurrezagutzatik historiara etxekoan laguntzaz.

-Ondoko jarduera honetan, aurreko galderari heldu eta haurrei proposatuko diegu galdera horren erantzuna etxean galdetzeko. Aiton-amonei edota gurasoei galdetuko diete - edo gertuko beste edonori. Eta esango diegu etxean jasotako erantzunak eskolara ekartzeko hemen ere aurkezteko.

Hau, idazketa ariketa bezala planteatu daiteke (gerora ebaluatzeko). Haur bakoitzari erantzun dioten hori paper batean apuntatzeko esango diegu. Idatziz izan behar dela gogora ekarriko diegu eta nahi izanez gero marrazki batez laguntzea ere baloratuko dugula.

-Behin haur guztiek erantzuna daukatela **talde txikitan** komunean jarriko dute zer erantzun dieten etxean. Horretarako 5-10 minutu izango dituzte.

-Horren ostean, talde bakoitzetik batek hartuko du ardura talde txikietan irten den hori talde handian konpartitzeko. Ardura hau hartuko duen haurra izan dadila parte hartzea kosta egiten zaion haur bat edo laburbilduz, ikustarazteko beharra duen inor.

-Eta talde handian gaudela, poliki-poliki helduko gara ondorio honetara: **Oñatiko herrian Gebarako jaunak edo kondeak izan zuela boterea. Berak agintzen zuen, zergak jasotzen zituen, lur asko zeuzkan... Finean Oñatiarrak bere mendean bizi ziren.**

- 3. jarduera → Botererik ez zutenen bizitza

-Aurreko jarduerako ondorio horren berri izanda, haurrak mundu horretara sar daitezen gonbidapena luzatuko diegu. Agintariez ari gara hizketan, baina nolakoa zen agintzen ez zutenen bizitza? Nola bizi ziren? (*Ikus eranskinak*)

- *“Beraz, ikusi dugu agintariak zer nolako bizitza zeukan eta langileek zenbat lan egiten zuten. Gainera hauek lan eta lan eta zerga asko eman behar izaten zioten Kondeari. Eta noski... gela honetan ere badago horrelako zerbait ezta? Batek “agintzen” du eta besteok “lan” egiten duzue. Hara! Eta zer iruditzen gure gela honetan Erdi Aroko Oñati txiki bat sortzen badugu? Nork izan nahi du Kondea? Nork izan nahi du Kontzejuko kide? Nor langile?*

-Aurreko hori esanda amaituko dugu hasierako fasea. Hurrengo jardueretan komeni da ahalik eta sentimendu gehien mugitzea. Taldeak talde eta pertsonak pertsona, eta proiektu honen helburua, besteak beste, frustrazioa eta haserrea kudeatzea baldin bada, ez da gomendagarria beldurra edukitzea horiek probokatzerako garaian. Ikasteko aukera paregabea izango du haur horrek “kondeak” zerbait “txarra” eragiten badio bere barnean.

GARAPEN FASEA

- 4. jarduera → Konde berria gelan

-Jarduera honen helburua izango da Kondea gelako nor izango den “aukeratzea”. Hemen proposatzen da Kondeak berak bere burua aukeratzea. Lehenengo esaten duenak “ni kondea izango naiz” hura izango da kondea. Normalean hau esango du taldean botere gehien duen pertsonak, eta hau proiektu honentzat gomendagarria da. Kapaz izan behar da arau “gaiztoak” hartzeko; besteak oso gustuko izango ez dituztenak (hala ez bada, irakasleak lagundu beharko dio horretan, paradoxikoki). Hori bai. Galdera egin aurretik irakasleak oso argi utziko du hartuko diren erabakiak erruz errespetatuko direla.

-Bertan hasiko dira lehenengo haserreak. Hau oso garrantzitsua izango da eta ikusten dugunean inor asaldatuta, esango diegu sentitzen ari direnaz gogora daitezen; gorde dezaten. Hau ezinbestekoa izango da hurrengo jarduerarako.

-Noski, bitarte horretan Kondeak erabaki batzuk hartu beharko ditu eta **arauen kartulina** izango du bere eskutan. Bertan okurritzen zaizkion lehenengo bi arauak idatziko ditu. Gelakideek ezin diezaiokete aurre egin erabakiari eta bete egin beharko dute ezinbestez. Inork aurre egiten badio hartutako neurriari, Kondeak bere eskutan izango du bere aldeko esklabuak edo polizia antzerakoak izendatzeko, esate baterako.

-Hau eta gero, gelako ohiko jardunera bueltatu gaitzke. Eta araua baldin bada Kondeak eskatzen dituen mesedeak errespetatzea, adibidez, ba arkatza falta bazaio utzi egingo diote, lekuz aldatzea nahi badu mahaia eta bere gauza guztiak lekuz aldatuko dizkiote... Baina ez du ohiko jarduna bete-betean oztopatuko, ekintza puntualak izango dira. (Irakasle guztiek izan behar dute honen berri, noski).

-Irakasleak aurreratuko du berak ETEN esaten duenean jolasa eten egingo dela eta horri men egin behar zaiola. Beraz, derrigorrez bakoitza bere "onera" itzuliko da oihu horren ostean.

- 5. Jarduera → Kondea eta asanblada

-Egun oso bat edo bi igaro ostean eta jendea asaldatuta edo geldigor ikusten baditugu -proiektuaren helburuari lotuta- , irakasleak *"ETEN!"* oihukatuko du.

-Momentu horretan asanblada moduan jarriko dira guztiak eta bakoitzak izan duen papera eta paper horretan sentitu duen guztia azaleratuko du. Inori kosta egin bazaio eta gu behatzen adi egon garenez -hala beharko luke- lagundu egingo diogu barrukoa ateratzen bere gogoia egoera zehatzetara ekarriz. Jarduera honek talde izaeraren sendotzean sekulako indarra izan dezake ondo irtenez gero.

Galdera honakoa izango da, beraz: *Nola sentitu zarete kondearen boterearen menpe? Eta kondea nola sentitu da "zapaltzaile" paperean?*

-Garrantzitsua izango da soilik barruan dutena erdira botatzea denek entzun dezaten eta aintzat hartu dezaten. Gogoratu egi behar baitugu, proiektu honetako beste helburu bat enpatia lantzea dela eta asanblada honen helburua hori litzateke, besteak beste.

-Gatazkarik balego, konpondu beharko litzateke eta foro hau horretarako erabilteza gomendatzen da. Noski, gatazka larria baldin bada agian bakarka konpontzekoa litzateke. Baina proiektuaren helburutan barne hartu ez dugunez, bertan ez da horri lotutako jarduerarik planteatuko.

-Honen ostean irakasleak horrelako zerbait esan dezake: *“Eskerrik asko benetan zuen barruko guztia gurekin partekatzeagatik. Oso garrantzitsua da guztiontzat nola gauden jakitea. Hala ere, jolasarekin jarraituko dugu lagunok! JARRAITU!”*

- 6. Jarduera → Kondea indartsuago

-Baina klasearen ohiko jardunera bueltatu baino lehenago, ondorengo hau egin beharko da. Kondeari irakasleak eskatuko dio bere arategia erreparatu eta gogortzeko. Berak erabaki ahal izango ditu bi arau berri.

Agian egun batean bati-edo debekatu diezaioke errekreora joatea, pasillora joatea, pasillotik gelaratzea... Edozer izan daiteke. Adibide simple batzuk besterik ez dira. Baina bai izan behar dira besteari zerbait eragingo dion arau bat.

-Behin hau eginda, gelak jarrai dezake bere ohiko jardunean.

- 7. jarduera → Kondea eta kontzejua

-Bertan, gelako ohiko jardunean agertzen zaizkigun egoerak baliatuko ditugu jorratzen eta pairatzen ari diren botere harremana indartzeko. Suposatuko dugu Kondea bakarra dela eta beste guztiak Kontzejuko kide direla (ez bada kondeen aliaturen bat; hori ez litzateke hurrengorako kontuan hartuko).

-Egoeratako bat izan daiteke, bada, gaur jolasean ibili gara guztiok (segur aski kondeak erabaki du jolas hori ere) eta gela jaso behar da. Bada, lehenengo eta behin Kontzejuko kideek (gelakideek) erabakiko dute nork eta nola jaso behar duen (erabaki dezakete hori guztiok batera egingo dutela eta bostek...).

Orduan erabaki hori Kondeari aurkeztuko zaio. Kondeak, segur aski, ez du begi onez ikusiko eta bere ikuspegia inposatuko du beste agindu bat ezarriz. Eta noski, herriak obeditu egin beharko du.

-Halako egoerak horrelakoetarako aprobetxatzea gomendatzen da. Hau horrela, honek aurrera jarraituko luke gelako ohiko jardunera igarota.

- 8. jarduera → Kondeak eta zergak

-Beste edozein egunetan aipatu ere egin behar da herritarrek euren aberastasunaren arabera zergak ordaindu behar zizkiotela Oñatiko Kondeari. (*Ikus azalpena eranskinetan*)

-Orduan Kondeak erabaki beharko du zein izango den herritar bakoitzak eman behar dion zerga. Hemen proposatzen dena da haurrek errekreorako ekarri duten hamarretakoaren zatitxo bat Kondeari ematea. Berak, Kondea den bitartean, pribilejio hori izango du.

-Berrito ere haur askori haserre edota frustrazioa sentiarazteko modu bat izango da hau. Beste batzuek pozarren egingo dute baina beste batzuei kostatzen zaie. Hemen ere irakasleak adi egon beharko du eta egoera gehienei arreta jarri.

-Nahi beste errekreotan egin ahal izango da eta tarte honen ostean, gelak bere ohiko jardunean segituko du.

*OHARRA: Noski, hau egiteko modua ere kategorikoa izan behar da. Esate baterako Kondea aulki baten gainean jarriko da gelaren erdian edo arbelaren erdian eta besteak etorri egingo zaizkio zergak ordaintzera. Halako ekintzetan ere garrantzia emango diogu egiten den moduari. Hau da, protagonismoa emango diogu.

EKOIZPEN FASEA

- 9. Jarduera → ASANBLADA NAGUSIA

-Jolasak amaiera eskatzen duenean -bere kabuz eskatuko baitu-, irakasleak azken aldiz "ETEN!" oihukatuko du. Orduan guztiak jarriko ditugu asanblada eran eta jarduerari hasiera emango diogu.

-Erronda bat egingo dugu aurreko asanbladaren antzera. Nola sentitu garen, berdintsu, okerrago hobeto? Zer sentitu duen ere galdetuko diegu. Eta elkarrizketa honek bere bidea egin dezake, haurren sentimenduak euren artean ere gurutzatu egingo direlako eta ulertu ahal izango dutelako euren lagunek ere zer sentitu duten.

-Kondearen papera egin duenak ere azaldu beharko du zer sentitu duen. Galdetuko diogu ea nola ikusten zituen besteak. Ea gustatzen zitzaion agintzea eta bere menpekoak haserre edo triste ikustea.

-Eta beste guztiok, hau dena pasa eta gero, Konde izango bazinete, nola aginduko zenukete?

Zuen onerako? Denon onerako? Zergatik?

-Bada, munduko leku askotan gaur egun zuen moduko jende asko dago. Beti konde baten azpian. Pentsatu eta erabakitzen dutenari ez diote kasu egiten, arauak agintariak bakarrik

jartzen ditu... Hau da hau. Zer iruditzen zaizue? Honen erantzun pare bat entzun eta guztiak gonbidatuko ditugu hitz eta marrazkien bidez orri zuri batean euren iritzia adieraztera, bizi izan duten guztia kontuan hartuz. Gero gelan jar daitezke eta nahi duenak azal dezake egin duena.

-Hemen giro intimoa bat sortzea da helburua. Halako gauzak goxotasunean hobeto iritetzen dira.

- 10. Jarduera → Bidearen ebaluaketa

-Oraingo honetan ere ebaluazio bisuala egitearen hautua proposatzen da. Kartulina bana emango diegu haurrei. Eta bertan idatzi beharko dute proiektu osoko zerbaitekin harremana daukan zerbaitekin. Izan daiteke gauza bat, sentimendu bat, jarrera bat, ekintza bat... Edozer. Behin idatzita arbelean itsatsiko ditugu guztiak nahastuta eta bata bestearengandik nahiko bananduta.

-Orduan haurrak banan-banan aterako dira eta esango dute zein hitz aukeratu duten eta zergatik. Eta hitz hori beste batekin idatzitako beste batekin lotu beharko dute klarionarekin gezi bat marraztuz, eta honen azalpena ere eman beharko dute honi ere zergatia gehituz. Eta noski, zer ikasi duten ere esan beharko dute.

-Honi argazkia aterako zaio eta gordeta geratuko da nolabait, talde bezala proiektu honetan ikasi eta sentitu duten guztia.

-OHARRA: Lurrean ere egin daiteke eta lotzeko hari potoloa erabili. Nahi den bezala.

-

HEZURDURA

- **Hasiera fasea** → Ikasleen aurrezagutzak aktibatu eta pixkanaka gaien murgilduko dira input eta jarduera diferenteen bitartez.
 - 1. jarduera → Aurrezagutzak identifikatzen
 - Helburua: Asanbladan Oñatiko kargu-sistemaren inguruan dakitena plazaratzea eta gaien murgiltzen hastea.
 - Baliabideak: Irakasleak egingo duen galdera sorta.
 - Ebaluazioa: Irakaslearen behaketa.
 - 2. jarduera → Aurrezagutzatik historiara etxekoen laguntzaz.
 - Helburua: Erdi Aroko Oñatiko jendarte egitura aztertzea eta etxean jasotakoa gelan komentatzea.
 - Baliabideak: Galdera sorta, arbela.. eta haurren “apunteak”.
 - Ebaluazioa: Etxean galdetzeko konpromisoa ea arduraz bete duten eta ea esandakoa jasota ekarri duten.
 - 3. jarduera → Boteretik ez zutenen bizitza
 - Helburua: Azken xedea izango den hori finkatzea.
 - Baliabideak: -
 - Ebaluazioa: Behaketa
- **Garapen fasea** → Azken xedea modu egokian bete ahal izateko egin beharreko lanketen proposamena agertzen da fase honetan.
 - 4. jarduera → Konde berria gelan
 - Helburua: Gelako Kondea izendatzea eta honek bere kabuz arauak jartzea.
 - Baliabideak: Kartulinak
 - Ebaluazioa: Behaketa eta kartulinak
 - 5. Jarduera → Kondea eta asanblada
 - Helburua: Jarduera honetan gela guztia asanbladan eseriko da eta kondearen boterearen azpian nola sentitu diren azalduko dute. Eta Kondeak ere bai.
 - Baliabideak: -
 - Ebaluazioa: Irakaslearen behaketa (parte-hartzea, egokitasuna eta onarpena)
 - 6. Jarduera → Kondea indartsuago
 - Helburua: Erabaki zakarrak hartzea eta besteengan zerbait positiboa edo negatiboa sortzea.
 - Baliabideak: Behar izanez gero kartulina bat.

- Ebaluazioa: Behaketa.

- **Ekoizpen fasea** → Landu den guztiarekin lehen fasean finkatutako azken xede hori lortzea edo lortzen saiatzea da fase honen helburua.
 - 7. jarduera → Kondea eta kontzejua
 - Helburua: Oraingoan kontzejuak hartuko ditu hainbat erabaki eta kondeak erabakiko du errespetatu edo ez onartzea.
 - Baliabideak: -
 - Ebaluazioa: Behaketa eta fitxa

 - 8. jarduera → Kondeak eta zergak
 - Helburua: Kondeak herritar bakoitzari zorrak eskatzea. (XV.mendeko zerga-sistemarekin parekatzea). Ostean Kondeak boterea galduko du.
 - Baliabideak: Arbela
 - Ebaluazioa: Irakaslearen behaketa eta azalpenak

 - 9. Jarduera → ASANBLADA NAGUSIA
 - Helburua: Asanbladan Kondearen jolasa hasi zenetik nola sentitu diren adieraztea. Egoera hori gaur egungo munduarekin alderatzea.
 - Baliabideak: Orri zuri handiak, margoak, errotulagailuak...
 - Ebaluazioa: Irakaslearen behaketa
 - (Teknika): Asanblada

 - 10. Jarduera → Bidearen ebaluaketa
 - Helburua: Kartulinetan bakoitzak hitz (edo marrazki) klabea idatzi eta beste batek idatzitakoarekin lotzea azalpenak emanaz.
 - Baliabideak: Koloretako kartulinak, margoak...
 - Ebaluazioa: Irakaslearen behaketa eta taldearen balorazioa.

ERANSKINAK (FITXAK eta JAKINGARRIAK)

ERDI AROKO OÑATI

Oñatiko bereizgarritasuna historian zehar, bere egoera administratiboa izan daiteke: lehenik, jaurreria, gero kondadoa eta , azkenik, 1845ean, Gipuzkoako probintzi barruan.

1149ko dokumentu baten arabera, Oñatiko jaurreriaren hasiera urte horretan eman zela pentsatu izan da orain arte. Baina garai baten egiazkotzat jotzen zen dokumentu hori, gaur egun ez da egiazkotzat hartzen. Esaten baita Kondeak berak enkargatu zuela idatzi hori XIV.mendean oñatiarrei demostratzeko bere lurak zirela Oñatikoak.

Beraz, ez daukagu jaurreri honetako sorreraren berri zehatzik. Dakiguna zer da: XIV. mendearen hasiera arte ez dugula Oñatiko jaurreriari buruz berri handirik.

-GEBARATARREN BOTEREA

Gebarako edo Oñatiko jaunaren boterea bikoitza izan zuen herrian: botere territoriala eta juridisdizionala izan zuen.

Territoriala:

Lurrari lotutakoa ziren. Errentak jaso, mendien jabetasuna eta erabilpena zaindu,... Hala ere, ez pentsa Oñatiko lur guztiak jaunarenak zirenik. Ba omen zeuden herri-lurrak edo oñatiar guztien lurrak ere. Kasu honetan, nahiko eztabaida egon ziren lur horrek jaunarenak edo benetan herritarrenak ote ziren baieztatzeko.

Territoriala esaten dugunean, lur kanpoko hainbat arlo ekonomikoren jabetasuna ere, esan dezakegu. Hau da, jauna zenbait burdinolen (Bidaurreta, Olalde eta Zubillaga), zenbait erroten,... jabe zen. Edo Oñatitik kanpo, Arrasateko burdinolak, Gatzagako gatz-tokiak,... Beraz, ikaragarritzko botere ekonomikoa zeukan Oñatiko jaunak.

Menpekotasun honen barruan eta zerbait bitxia azpimarratuz, oñatiarrek jaunari ordaindu behar zizkioten bi zerga: Eskurbeste eta mandoena zeritzanak.

Eskurbeste: Zerga batzuren truke, herritar guztiak ibil zitezkeen jaunaren mendietan. Horietako batek, txerriekin -eskurbeste- zerikusia dauka. Hau da, 66 txerrietatik bat jaunari zor zitzaion.

Mandoena: Artiatik ikatzekin jaisten zen mando bakoitzeko, hainbat diru (20 marabedi) ordaindu behar zitzaion jaunari.

Jurisdikzionala:

Domeinu territoriala edo ekonomikoaz gaiz, jaunak bazeukan beste botere mota bat: jurisdikzionala edo justiziaren administralgoa: lapurrak epaitzeko, herritarrek aukeratutako

alkateak onartzeko ala ez, herriko idazkaria aukeratzeko... eta Alkate Handia, edo Oñatin kontearen ordezkari izango zena aukeratzeko. Alkate Handi honek besteak beste, gartzela eta horka bere gain zituen.

Ikusten den bezala, jaunak gertutik jarraitzen zuen oñatiarren bizitza.

-BOTEREAREN AHULEZIA

Baina denbora ez da alferrik pasatzen, eta jaunaren boterearen “urrezko garaia” desagertzen ari zen. Baina zergatik? XV. mendean ustekabeko gertaerak ematen zirelako: lehenik, alderdien arteko borroka (Oñaztarrak eta Ganboatarrak). Oñatiko jaunak borroka horietan parte hartu zuen nabarmenki. Bestetik Hermandadeen, hiribilduan eta Gaztelako erregeen botere-sendotzea. Azkenik, mentalitate aldaketa. Gertakizun hauek, jaunaren boterearen ahulezia ekarri zuten.

Oñatiarrek testuinguru hau aprobetxatuz, lehenbailehen hasi ziren euren ordenantzak -zaharrak eta berriak- berridazten. Ordenantza edo kapitulado hauek jaunaren eskubideak zeintzuk ziren zehazki azpimarratzeaz gain, Oñati herri asko bezala sendotu zuten, Adibidez, XV. mendera arte herriko alkatea jaunak aukeratu baldin bazuen, ordutik aurrera herriak aukeratu zuten kargu hori.

Beraz, Oñatin menpekotasun gabeko herria eraikitzen ari ziren.